

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sustapenak Bera, Berriogoiti, Burlata (Erripagaña), Elortz, Lekaroz eta Murchanteko 143 BOEren hasierako esleipen-hartzaileen zerrenda argitaratu du

117 etxebizitza esleitu dira eta Murchanteko sustapenari dagozkion 26 hutsik geratu

Martes, 18 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak, Nasuvinsa sozietate publikoaren bidez, babes ofizialeko etxebizitzak [hasierako esleipen-hartzaileen zerrenda](#) egin du jabetza nahiz alokairuzko errejimenean eta erosketako aukerarekin ondorengo udalerrietan: Bera, Berriogoiti, Burlata (Erripagaña), Elortz, Lekaroz eta Murchanten, eta esleipenerako epea iragan ekainaren 1ean zabaldu zen.



Prozesu horren barnean zeuden 143 etxebizitzetatik hasiera batean 117 etxebizitza esleitu dira eta babes ofizialeko 26 etxebizitza esleitu gabe geratu dira alokairu-errejimenean eta erosteko aukerarekin, Murchanteko sustapenari dagozkionak (34 etxebizitza zituen).

Esleipen-hartzaileen zerrenda ofiziala herritar guztien eskura dago Nasuvinsaren bulegoetan, Iruñeko San Jorge etorbidea 8, behe solairuan, eta Tuterako Infonavarraren bulegoetan, Foruen plaza 5-6. [Nafarroako Gobernuaren etxebizitza-atarian](#) ere argitaratu dira.

Hasierako esleipen horretatik aurrera, 10 egun balioduneko epea zabaltzen da Iruñeko eta Tuterako Nasuvinsaren bulegoetan alegazioak aurkezteko, nahiz eta haietan ezingo den eskaera bakoitzaren izen-ematean jada baloratutako alderdiei buruz jardun.

Alegazioak ebatzi ondoren, behin-behineko esleipen-hartzaileen zerrenda argitaratuko da. Orduan 10 egun balioduneko beste aldi bat zabalduko da dokumentazioa aurkezteko eta, bertan ziurtatuko da babestutako etxebizitza izateko gutxieneko baldintzak betetzen direla eta sartzeko baremo bakarra zuzen aplikatu dela. Dokumentazioa epearen barnean ez bada ematen etxebizitzaren esleipendunak adierazi gabe etxebizitzari uko egiten diola iritziko da.

Gogoratu behar da, gehienez ere, babestutako etxebizitzaren behin-behineko esleipen bati uko egiten uzten dela. Fase horretan bigarren etxebizitza bati uko egiteak urtebetez erroldatik kanpo uztea dakar.

Erroldan izena ematea

Izena emateko prozesua etengabe dago zabalik eta ez du epemugarik; beraz, interesa duten pertsonak nahi dutenean eman dezakete izena.

Babestutako etxebizitza eskatu nahi dutenek eta oraindik erroldan izena eman ez dutenek, telematikoki egin dezakete hori www.vivienda.navarra.es webgunean eta presentzialki 012 telefonoan hitzordua eskatuta, edo Tuterako Infonavarra bulegoan (Foruen plaza, 5-6).

Aldez aurretik hitzordua eskatzen dutenek izena emateko lekua Iruñeko Nasuvinsaren bulegoak (San Jorge etorbidea, 8, behe solairua) edo Tuterako Infonavarraren bulegoa aukera dezakete.